

# 1. BALIO PROPOSAMENAK

Bezeroei segurtasuna eskaintzen diegu. Kandaterkia, gure egun euritsuak aldatzera etorri den aterkia da. Gure aterki preziatuak edo kuttunak gurekin etxeratuko direlaren segurtasuna emango diguna, horretarako giltzarrapo bat duen mekanismo berritzaile bat diseinatu eta haien lapurketaren beldurra ekiditen dugu. Gainera, bezeroekin harreman zuzen eta ezin hobea dugu. Azkenik, orain arte zituzten beharrak asetzen ditugu, esaterako aterkia segurtasunez leku batean uztea. Guk sortutako aterki modelo bat da, ez da beste aterkiei jarri ahal zaien mekanismoa.



Horretaz gain, produktua pertsonalizatzeko aukera ere ematen dugu prezio ezin hobean, hau da 12-15€ artean; bezero edo segmentu konkretu batzuen beharretara egokitzeko. Gaur egun, pertsonalizazio masiboa, edo sorkuntza partekatua bezalako ideiek, garrantzi handia hartu dute. Horrela, produktu edo zerbitzu pertsonalizatuak egiteko aukera dago, eskala ekonomiak aprobetxatuz.

